

Nafarkaria

Egunkaria

Ostrala, 1996ko maiatzaren 10a



Kultur kudeaketaz gogoeta

■ Kultur kudeaketaren joera berriak aztergai izanen dira gaur Barañaingo kultur etxean. Goizeko bederatzi eta erdietatik aurrera jardunaldia egingen dute bertan, Nafarroako Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionaleko Hezkuntza Sailak antolatuta. Sail honetako lehendakari da Koldo Ruiz eta elkarteko lehendakari, berriz, Patxi Mikeo. Beraie-

kin mintzatu gara kultur kudeaketaren eremuan Nafarroako udaletako kultur teknikariek duten zereginari buruz. Langileok dituzten arazo nagusiak ere plazaratu dizkigute, politika eta aurrekontua, alegia. Horiei aurre eginez herritar guztien gustuko ekitaldiak antolatzea da kultur teknika-
rion erronka. ■

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Kubatik etorri berriak gara. Tomás Gutiérrez Alearen gorputza bahitu eta gure bihotzeko *zuló* batean lurperatu dugu: ekintza iraultzailea. Bakarrik gelditu den Georgina-Mirta haren andre zoragarria konplize genuen. Bera bertan utzi dugu ordea. Libre. Agur erran (adiosik ez!) eta musu eman diogu elkarri (ezpainetan autsiki ttikia). Euri epela ari zuen eta Gariren ahotsak kilika egiten zigun erraietan: Guantanamera.

Kuban hilkutxa bat irlaren punta batetik bertzera eramateko baino buru-hauste gehiago hemen, ltoitz aldeko hilkutxa erraldoiarekin. Parisen teilatuak aina milioiko obra hori, eztabaida lasarik bideratu gabe, kosta ahala kosta, egin nahi dutenak, pollitak dabilta! Ba-

Aro berria

etik aitaren baimenik ez (Auzitegiaren erabakia), bertze aldetik kontrako haize izugarria (manifestazioak), gero sorpresa-kutxa idekitzean ukabilkada muturrean (Hotel Iruña Park), eta orain zortzi *pajaro loco-txoritxoro* hari lodiak urratu dizkiete mokoka (Desconstrucciones Itoiz). Gartzelara sartu zituzten, ilargiak érditutako elkartasun-ondoak parrastaka jaiotzen zirenekin batera.

Horren ondotik pareta batzuetan mezuak irakurri ditugu: Itoitz goma bi! Eta segituan ulertu dugu erran nahi zutena, eta gu akort horrekin. Alegia, bi goma, bi txano, bi kondoi, bi kapot...: bata, iritzi-emaile salduen luman edo politikari us-telen mingainean, haien pozoinarekin

inor kutsa ez dezaten; eta bertzea aberriaren salbatzaileen pistolen aho egiazkoetan, deskuidoan inor bidal ez dezaten G. Alearen funerarietan biatzera. Hau da, utikan Pinotxo sudurluzeak eta utikan Superman guztiahaldunak!

Izanez ere, askitaraino aspertuak gaude horrelakoekin. Aldatzeko tenorea da. Lorezain lagunak ongi erran digun bezala, gure kaskezurrak ideki, zainak goroztu eta lur berria botatzeko garaia dugu hauze. Eta honenbertze sasi eta laharren partez, mendi-xulufriak aterako zaizkigu belarri zuloetatik, eta hanka frinkatzen dugun toki bakoitzean landare bat sortuko da, eta oihan usu baten erdian egingen dugu gure kabia. Heroirik ez, gora eroen aroa! X

KONTZERTUAK

Lakuntza: Gari Hertzainak taldeko abeslari ohiak eta Dr. Deseo rock taldeak kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 10, 23.00tik aurrera. Sarrera mila pezetan.

Barañain: Anje Duhalde kantari ariko da bihar, hilak 11, 19.30etatik aurrera. Haizea elkarrearen egoitzan eta elkarreak berak antolatuta. Kantaldia musutruk izanen da.

Iruña: Desoreka, Piperrak, Eskixu eta Gozategi taldeek kontzertu erraldoia eskainiko dute ostira-lean, hilak 11, Gotorlekuko pilotalekuan.

Barañain: Buñuel, Cortes eta Barañaingo orkestrek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak 11, 19.00etatik aurrera Kultur Areto-ko plazan. Ekitaldia musika banda gazteei eskainitako zikloaren barruan izanen da.

GAUPASAK

Mutiloabeiti: Drindots taldearekin gaupasa izanen da gaur, hilak 10, 24.30etatik aurrera herriko kiroldegiko pilotalekuan. Horren aurretik, 22.30etan, afaria izanen da toki berean. Iruñerriko AEK-k antolatu ditu gaupasa zein afaria.

ANTZERKIA

Tafalla: Yang Feng Puppet Theatre konpainiak Pekingo Operako hainbat eszena taularatuko ditu gaur, hilak 10, 23.00etatik aitzina, Gjesera aretoan.

ERAKUSKETAK

Zangoza: Alfonso Ascunceren lanak, hilaren 16tik 28ra arte, Zangozako Kultur Etxean.

Iruña: Asun Goikoetxearen mar-goak hilaren 26ra arte izanen dira ikusgai NUPen Carlos III.aren etorbideko erakustaretoan.

Tafalla: Rosa Zunzarrenen lanak daude maiatzaren 19ra arte Velaz galerian (Iruña etorbidea, 15).

Zizur Nagusia: Mikel Meleroren lanak izanen dira ikusgai herriko Kultur Etxean, gaurtik aurrera maiatzaren 26ra arte.

TXIRRINDULARITZA

Iruña: Mendi Txirrindularitzako Jaitsierako Munduko Kopa jokatuko da bihar, hilak 11, Panticosan (Huesca). Hori dela kausa, ikuskaria zuzenean ikusi ahal izateko Panticosara joateko autobusak antolatu ditu Ikae kirol taldeak. Horren berri zehatzagoa 17 43 58 telefonora deituta jasoko duzue.

LEHIAKETAK

Iruña: San Fermin peñak Sanferminetan haren pankartan ageriko den marrakzia hautatzeko lehiaketarako deia egin du. Honako hau da peñaren helbidea: Gelbentzu kalea. 13-15.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Ez dut deus ulertzen

Azkenean, iragarrita zegoen bezala, bai CIUK bai EAJK baiezkua eman diote Aznarri. Horiei esker, beraz, Gonzalezek Moncloa utzi eta bikote zorientzuek badu etxe berria, nahiz eta gustokoa ez izan. Etxea handiegia, gelak gaizki dekoratuta, lorategia ere ez omen da Aznartarren gustoko. Tira, zer egingen zaio! Politika zerbitzua bat da, bizkar gainean eraman beharreko zama handia, baina gizartearen onerako badira sakrifizio guztiak onartu behar dira.

Badira nahita onartutako sakrifizioak, esate baterako, Moncloara joan beharra. Bertze batzuk, ordea, hauteskunde emaitzen ondorio izaten dira. Horietako bat Iruñeko alkategai eta diputatugai ospetsuak bere gain hartu behar izan du. Pronostiko guztien aurka, bietan apustua galdu zuen eta, horregatik, bere alderdiko batzuek gaztearentzako posturen bat eskatu diete hainbertze kargu banatu beharko dutenei.

Madrilen baietz erraten badute, Pomes bezain alai ikusiko dugu egun batetik bertzerara orainik eta etorkizunik gabe gelditu zena. Hark alderdiaren banaketarako aitzakiazat erabilia izan

ondoren, itxoiten jakin du Europako Legebiltzarrean eserleku ba hutsik gelditu den arte. Oraingoa pazientziaren saria da.

Egia erran, Partidu Popularraren agintaldien hasierak ez du Nafarroan oihartzun handirik izan. Onerako edo txarrerako, gurea hutsaren hurrengoa da, bai boterea eskuratu berri dutenentzat eta baita negoziazioan aritu direnentzat ere. Horregatik, negoziazioa amaituta kazetari batek Del Burgori EAJrekiko hitzarmenaz galdetu zionean, hark paktua Nafarroa eta Espainiarentzat oso ona zela adierazi zuen, Nafarroaren «nortasuna» ez zegoela arriskutan azpimarratuz. Lasai daitezela, beraz, EAJk Nafarroari buruzko eskakizunen bat mahai gainean jar zezakeela uste zuten banaka batzuk. Ez dago kezkatzeko arrazoirik etsaia lagun bihurtu delako.

UPN EAJren lagun, Aznarrek soldadutza desagertarazi nahi du, eta Espainia bat eta bakarraren jarraitzailek sutsuenak autonomizale bihurtu zaizkigu bat-batean. Ai ene!, ez dut deus ulertzen baina hau dena susmagarria da. Susmagarriega.



asteko pertsonaiak



Rafael Benitez
Entrenatzailea

■ Rafael Benitez, torero izena badu ere, entrenatzailea da, eta ona gainera. Hori irtzi diote, bederen, Osasunako Zuzendaritza Batzordeko ki-deek, eta hori dela kausa teknikari madrildarra Osasunako entrenatzailea izanen da heldu den denboraldian. Joan den asteartean sinatu zuen kontratua Osasunarekin. Horren arabera, Nafarroako taldea heldu den denboraldian lehendabiziko lau postuen artean sailkatzen bada, Benitezek Osasun segitzeko eskubidea izanen du. Madrildarrak, karguaz jabetu bezain pronto, Iruñean urtebete baino gehiago emateko asmoa duela adierazi zuen. Ezin esan ezkorra denik, inondik ere ez. Orain arte Real Madrid B eta Valladolid taldeetako entrenatzailea izan da.



Pruden Indurain
Txirrindularia

■ Miguelen anaia egunkari guztietako lehendabiziko orrietan aritu da egunotan, Alentejo aldean —Portugaleko hegoaldean— egin duen txirrindulari lasterketa apartarengatik. Orain arte profesionaletan darar-matzen urteetan inoiz irabazi ez eta lasterketa berean hiru etapetan nagusi izan zen atarrabiarra, eta hiruretan, gainera, esprintean. Horrez gain, sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu zuen Prudenek. Miguel, jakina, lehena izan zen, eta erakutsi zuen horrela forma ona hartzen ari dela ekainaren amaieran hasiko den Frantziako Tourraren-dako. Prudenek, jada etxean, azaldu du beti izan dela bere baitan esprinter bat, baina orain arte ez duela aukerarik izan hori erakusteko.

ahaztu gabe!



GOENKALEKOEKIN
MAHAINGURUA

Irurtzun: Goenkale telealeko aktoreekin mahaingurua antolatu dute Aizpea eta Larrazpi kultur elkarteek, *Nirekin euskaraz* kanpainaren barruan. Gaur bertan, hilak 10, egingen da solasaldia, ilunabarreko zortzi eta erdietatik aurrera herriko kultur etxean. Bertan izanen dira egunero-egunero pantaila txikian ikus ditzakezun Teresa Andonegi (Idoia), Teresa Lopez de Unzine (Gina), Anabel Arraiza (Sara), David Errasti (On Luis) eta Jo-xean Bengoetxea (On Mariano) aktoreak. Goenkale telealeko aktoreen ondoan Euskalerrira irratiko esataria den Enrike Diez de Ultzurrun (On Kike) ariko da moderatzaile lanetan. Beraz, badakizu, zuretzat eguna arratsaldeko hiruretan, Goenkale pantailaratzen duten orduan hasten bada, Arraldekoen abenturen eta kalenturen berririk izan gabe ezin baduzu bizi, hona hemen zure heroiak gertu-gertutik ezagutzeko aukera. Batek daki, Irurtzongo solasaldira bertaratzekotan akaso horietako baten bat ukitzeko edota autograforen bat patrikaratzeko parada izanen duzu.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Viana

Gazte Elkartearen Eguna da bihar


Ekitaldi ugari antolatu ditu Vianan Nafarroako Gazte Kontseiluak egun osorako

Nafarroako Gazte Kontseiluak antolatuta, Gazte Elkartearen Eguna ospatuko dute bihar egun osoan Vianan. Herriko txokoetan ekitaldi ugari izanen da, musika, antzerkia, jokoak eta tailerrak besteak beste. Vianako harresiak eskalatzeko eta globo baten barruan hegan egiteko aukera izanen dute bertan bildutakoek.

Erredakzioa / Iruñea

GAZTE ELKARTEAREN EGUNA ospatuko dute bihar Vianan. Urtero bezala, aurreko ere Nafarroako Gazte Kontseiluak antolatu du jaialdi hau. Herriko hainbat lekutan banatuta egonen dira jai-egun honetarako antolatu dituzten ekitaldiak, zazpi lekutan hain zuzen ere, Ulteia Berrin, Kosoko plazan, Harresietan, Plaza Nagusian, Donibane Atean, Ikastolako zelaian eta Iturri Zaharrean.

Ulteia Berritik botako dute goizeko hamarretan Gazte Elkartearen Egunari hasiera ofiziala emanen dion suzuria. Ongi etorria izanen da. Bertatik ere goizeko hamarretan eta laurdenetan, eta erdietan eta hamabiak eta erdietan Las Cañas aintzirara ailegatu diren txangoak aterako dira. Arratsaldean, berriz, musika izanen da protagonista. Seietan, hain zuzen, Bittor Aiape abeslari gaztea izanen da taula gainean. Gazte Elkartearen Egunari ere Ulteia Berritik erranen diote agur. Arratsaldeko zazpiak eta erdietan izanen da amaiera ekitaldia. Ondoren, zortzietan, Et-



Bittor Aiapek kontzertua eskainiko du bihar Vianan.

EDURNE KOCH

hos orkestrarekin dantzaldia izanen.

Kosoko plazan, goizeko hamarretan eta erdietatik aurrera herri kirolak izanen dira, baita xake partidak eta beste hainbat joko ere. Arratsalde partean, lauak eta erdietan, berriz, antzerkia. Kukubiltxo taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du.

Harresietan ere izanen da zer egin. Bertan, harresiak eskalatzeko aukera izanen dute bertan hurbildutakoek. Goizeko hamarretan eta erdietan hasiko da eki-

taldia eta nahi duenak hartu ahal izanen du parte.

Plaza Nagusian, goizeko hamarretan eta erdietatik aurrera tailerrak izanen dira, txirikordak eta zintzilarioak egiten eta dantzaren eta txalaparta jotzen ikasteko. Ondoren, arratsaldeko laurak eta erdietan, aintzirako herri jolasak antolatu dituzte. Donibane Atean, berriz, goizeko hamarretan eta erdietan, herri barrera kultur bisita egitera eramango ditu tren batek bertan bildutakoak.

Ikastolako zelaian egonen da eguneko aukerarik zirrarragarrienetakoa, hau da, globo baten barruan hegaldea egiteko aukera. Ausartenean hartu ahal izanen dute parte ekitaldi honetan.

Ongi bazkaltzea nahiago dutenek Iturri Zaharrean dute aukera. Herri bazkaria egiten dute bertan arratsaldeko ordu bietan. Ondoren, laurak aldera, entzerrero txikia izanen da.

Ekitaldi horietaz gain, egun osoan erakusketak izanen dira Kultur Etxean. X

Leitza

Laburmetraien Lehiaketa ekainaren 22an izanen da

Bigarren aldiz antolatu du Mikelats taldeak

Erredakzioa / Iruñea

BIGARREN urtez jarraian, Leitzako Laburmetraien Lehiaketa egiten dute datorren ekainaren 22an herriko zineman, Andoaingo Zine eta Bideo Eskolako Mikelats taldeak antolatu du, eta parte hartzeko deialdia zabaldu du jada. Lehiaketa honen bidez, profesionalak ez diren bideo grabazioak jendaurrean erakustea du helburu Mikelats taldeak.

Lanak ekainaren 12a baino lehen Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan aurkeztu behar dituzte partehartzaileek, edo Leitzako Udalean bestela. Egilearen datu pertsonalak ezezik, laburmetraiararen sinopsia eta honen da-

tuak ere entregatu behar dituzte lanarekin batera.

Laburmetraiek 6 eta 15 minutu bitarteko iraupena izan behar dute, eta zintaren formatua S-VHS edo VHSkoa. Laburmetraiak fikziozkoak izan arren, hauen gaia librea izanen da. Lan guztiak, hala ere, euskaraz eginak izan behar dute.

Leitzako Bigarren Laburmetraien Lehiaketan parte hartuko duten lanak epaitzeko mahai zinema eta bideo munduan mugitzen den jendeak osatuko du eta hauen erabakia aldaezina izanen da. Laburmetraia irabazleak 50.000 pezetako saria eskuratuko du, bigarrenak 25.000, eta hirugarrenak, azkenik, 10.000. X

Tutera

Kultur eskaintza zabala datozen hilabeteetarako

Antzerki, musika eta zinema zikloak ikusgai

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO UDALAK kultur egitarau zabala prestatu du datozen hilabeteetarako. Hil honetan bertan, 24, 28, 30 eta 31n, Bigarren Zine Erakustaldia egiten dute, baita ekainaren lehen ere. Musika ere izanen da maiatzean: 15ean Pablo Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du, eta Fernando Remacha kontserbatorioko hainbat taldek ere emanaldiak eskainiko dituzte 17 eta 31n.

Ekaineko lehen astean, aste ekologikoa antolatu dute. Hilaren 6, 7 eta 8an, berriz, Liburuaren Azoka izanen da, baita haur eta gazteentzako ipuin lehiaketaren beste ekital-

di bat ere. Antzerkiari dagokionez, ekainaren 24a eta 28a bitartean, Erriberako lau taldek euren lanak aurkeztuko dituzte. Musika Eskolako ikasleek ere izanen dute dakitena erakusteko parada, ostiralero Tuterako txoko ezberdinetan.

Uztailan ere izanen da zer ikusi eta zer egin. Besteak beste, 19 eta 20an, Tuterako Hiria Lehen Folklore Jaialdia egiten dute Erriberako hiriburuan. Tuterako Dantza Taldeak antolatu du jaialdia. Partehertzaileak Tuterako bertako nahiz beste herrialde eta herrietako taldeak izango dira. Abuztuan, azkenik, beste ekitaldi batzuen artean, zinema zikloa egiten dute Tuteran. X

Iruñea

Iruñeko Maratoi Erdia igandean izanen da

Hamabosgarren aldian izanen da aurtengoa

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑEKO MARATOI ERDIA igandean honetan izanen da hiriburuko kaleetan barrera. Beste Iruña taldeak antolatuta, Nafarroako Aurrezki Kutxa, Iruñeko Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Galiziako etorbideetik abiatuko dira korrikalariak goizeko bederatzi eta erdietan. 21 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Horretarako, bi ordu eta hamabost minutuko denbora izanen dute gehienez. Lasterketa Larrabiden bukatuko da.

Parte hartu nahi duenak 1.000 pezeta ordaindu beharko du irten aurretik. Aurten, gainera, dortsalik ez duten korrikalariak ez diete helmugara ailegatzeko utziko.

Sarie dagokionez, 100.000 pezeta jasoko ditu lasterketa honetako irabazle osoak. Baina izanen dira beste sari batzuk ere. Beste 100.000 pezeta jasoko ditu, adibidez, lasterketako marka ontzen duenak: ordubete, hiru minutu eta 45 segundoko da hobetu beharreko denbora.

Iruñeko Maratoi Erdiaren hamabosgarren ekitaldia da aurtengoa. X

Zizur Nagusia

Dantza zikloa antolatu du Udalak

Bost dantza konpainiak hartuko dute parte

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO UDALAK antolatuta, dantza zikloa egiten dute hilabete osoan herriko Kultur Etxean. Gaur bertan ikusi ahal izanen da lehen emanaldia. Dzanga Taldea izanen da lehenengoa, zikloari hasiera emanen diena. Bihozkadak lana aurkeztuko du. Datorren ostiralean, berriz, Con buen pie konpainiak *En la trastienda* ikuskizuna aurkeztuko du.

Hilaren 24an Senza Tempo taldeak hartuko du parte Zizur Nagusiko dantza zikloan. *Robadors de sal* lana taularatu du bertan. Hilaren 31n, Maite Leonen Psico Ballet konpainiak *Giros escénicos* lana aurkeztuko du.

Ekainaren lehen, Maite Leonen baleta izango da Zizur Nagusian. 7 eta 8an, Tempomobile taldeak *Ladie's Night* lana aurkeztuko du.

Emanaldi guztiak gaueko bederatzietan hasiko dira ostiralean eta zortzietan larunbatetan. Sarrerak 500 pezetan izanen dira salgai. X

Udaletako kultur teknikariak
eta kudeaketa

Kultura teknikarien esku

Kultur kudeaketaren joera berriei buruz jardunaldia egingen dute gaur Barañaingo Kultur Etxean

Nafarroako Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionalak (NTSEP) antolatuta, kultur kudeaketaren joera berriak marketinetik abiatuta aztertuko dituzte gaur Barañaingo Kultur Etxean egingen duten jardunaldian. Abiapuntua hori izanik, kultur kudeaketa eta beraulantzen duten kultur teknikarien lanari buruz mintzatu gara Koldo Ruiz eta Patxi Mikeo elkarte honetako kideekin.

Edurne Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionalak (NTSEP) antolatuta, Kultur kudeaketaren joera berriak marketinetik abiatuta lelopeko jardunaldia egingen dute gaur, goizeko bederatzi eta erdietatik aurrera, Barañaingo Kultur Etxean. Toni Puig kataluniarra eta gaien aditua dena izanen da bertan hizlari.

NTSEP 1990. urteko otsailan jaio zen, nahiz eta aurretik ere udaletako kultur koordinatzaileen artean hartu-emanak izan. Elkarteak udal, talde eta erakunde publiko eta pribatuekin lan egiten duten kultur kudeaketaren arloko profesionalak biltzen ditu, eta egun 40 bazkide inguru ditu. Koldo Ruiz Nafarroako Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionaleko Hezkuntza Saileko lehendakariak jakinarazitako datuak dira hauek. Nafarroan, hain zuzen, 40 kultur etxe inguru daude. Hala ere, guztiek ez daukate kultur teknikaria, eta horietako askok, gainera, kultur etxerik gabe egiten dute lan, herriko bestelako eraikuntza eta elkar-teak edo kalea bera erabiltz.

Ezaugarri bereziak dituzten langileak dira kultur teknikariak, Koldo Ruizek adierazi digunez. «Denetarik jakin behar dute». Patxi Mikeok, Nafarroako Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionaleko lehendakari eta Irurtzango kultur eta kirol teknikariak, hauxe gaineratu du: «Malabarista da kultur teknikaria, elektrizista, atezain, idazkari eta hamaika gauza gehiago aldi berean». Kultur kudeaketa ez zik, kultur etxe baten administrazioa eta baita diruaren administrazioa ere bere gain hartu behar du askotan kultur teknikariak. Patxi Mikeo eta Koldo Ruizek zer edo zer badakite kontu horietaz. Urteetako esperientzia dute bizkar ganean.

Malabarista, elektrizista, idazkaria • Zein da, baina, kultur teknikarion lana, zehazki? Mikeok eta Ruizek erantzun diote galdera honi. «Bere herriko biz-



Kale antzerkia da udal askotako teknikariek antolatzen dituzten ekitaldietako bat.

JOXE LACALE

tanleen beharrak eta nahiak zeintzuk diren jakin behar du kultur teknikariak eta horiei erantzun. Horretarako, ahalik eta baliabide ekonomiko gutxien erabiliz, esfortzurik handiena egingen du, guztien gustukoak diren ekitaldiak antolatuz», Mikeoren hitzak. «Halaber, herritarren ekimenak jaso behar ditu», gaineratu du.

Kultur bultzatzailearen eta kudeatzailearen lana nahastea, hala ere, ez da komeni, Koldo Ruizek azaldu duenez. «Bultzatzaileak herriaren partehartzea bilatzen du eta herritarrekin batera gauzak egiten ditu. Kudeatzaileak, berriz, herriarentzako

Patxi Mikeo:

«Malabarista da kultur teknikaria, elektrizista, atezain, idazkari eta beste hamaika gauza aldi berean»

«Bere herriko biztanleriaren beharrak eta nahiak zein diren jakin behar du kultur teknikariak eta horiek bete»

ekitaldiak antolatzen ditu, horretarako duen aurrekontuaz baliatuz. Herri txikietan bultzatzailea da batez ere teknikaria, «herritarrengandik hurbilago baitago», Patxi Mikeoren ustez. Herri koskorragoetan, aldiz, kudeatzaile da batik bat teknikaria. Koldo Ruizen iduriko, gainera, azken hau da kultur teknikariari dagokion lana.

Lan hori, orain gutxi arte, mota anitzeko jendeak egin du. «Pintura gogoko duen eta ikastaroak antolatzen dituen igel-terotik hasi eta Parisko Sorbonan lizentziatu den gaztearekin bukatu arte». Gaur egun aukera sorta hori murriztu egin da.

«Gero eta profesionalagoak gara, finean». Profesionaltasun hori lortzea, hala ere, ez da batere erraza, «ez baitago kultur teknikaria izateko ikasketa espezifiko-rik, ikastaro, master eta kurtsuak egin behar ditugu».

Gaur egun, kultur teknikaria izateko behar-beharrezkoa da ikasketa ertainak izatea, baita kultur animazio eta kudeaketan

espezializazioa ere. Espezializazio hori eskuratzeko dira hain funtsezkoak ikastaroak eta masterrak, eta horiek Nafarroan egilakatzan ari da. European enpresa munduko langileak kontratatzea omen da joera, Koldo Ruizek plazaratu duenez. Arlo pribatuaren eta publikoaren artean, hain zuzen, ezberdintasunak egon badaudela uste du berak, «baina gutxituz doaz, publikoa gehiago baloratzen da egun».

Arlo bi hauek joera ezberdinak dituztela, hala ere, ez du ukatzen: «Pribatuak ikuskizun handi eta garrantzitsuak, garestiak ekartzera jo du. Nafarroan ere, diru publiko asko alferrik galdu da enpresa eta talde pribatuak halakoak egiteko kontratatuz». Ruizen arabera, kultur kudeaketak hori baino gehiago inplikatzeko du, konpromezu bat, alegia, «eta hori politikoei zehaztu behar dute, baina gutxitan egiten dute».

Orain arte lortutako profesionaltasunari eutsi nahi diote Nafarroako Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionaleko kideek, eta hori dela-eta kultur teknikari berrien aukeraketan zerkusirik izan nahi dute. Horiek epaitzeko mahaietako kide izaten dira, hain zuzen. Orain, gainera, hautagaiek ikasi eta jakin beharrekoak, edukia finean, zehazten saiatzen ari dira.

Politika eta dirua, arazo nagusiak

Politika eta dirua izaten ohi dira kultur teknikariek eguneroko lanean dituzten arazo nagusiak. Patxi Mikeok politikari ematen dio lehenetsuna arazoez mintzatzean, «politikak markatzen baitu kultur teknikariaren lana». Izan ere, udaletako kultur kudeaketari buruz hitz egiteko orduan kultur zinegotzia egoten da gehienetan kultur teknikariaren gaitetik. «Kudeaketa patronatu, kultur batzorde edo kultur koordinakunde baten bidez eginda ere, kultur zinegotzia izaten da beti hiru horietan lehendakari».

Ildo berean, udal gehienek politika seriorik ez dutela azpimarratu du Koldo Ruizek. «handienek bakarrik, Zizur edo Barañain kasu. Alderdi jakin bat dago horietan eta kanpaina bertan kultur politika zein izanen den zehazten dute. Horrek asko errazten du kultur teknikariaren lana, badakielako udal horrek zer nahi duen, aginduak bete besterik ez du egin behar. Kultur munduko profesionalak, finean, hori izan behar du, profesionala. Gure politikoen esku dauden tresnak baino ez gara, eta egoera horretara egoitzeko gaitasuna izan behar dugu. Politikoen-

Kulturaren intsumiso


NAFARROAKO Teknikari Soziokulturalen Elkarte Profesionaleko (NTSEP) Hezkuntza Sailak antolatu du gaurko Kultur kudeaketaren joera berriak marketinetik abiatuta jardunaldia. Toni Puig Bartzelonako Udaleko Elkarteentzako Agentziako zuzendari nagusi eta kultur kudeaketan aditua izanen da hizlari, goizeko hamarrak eta laudenetatik aurrera. Arratsaldean, berriz, gaiari buruz eztabaida egingen dute.

Koldo Ruiz elkarteko Hezkuntza Saileko lehendakariak aurreratu digu Toni Puigen hitzaldiaren mamia eta gaia. «Gizarte eta Kultur zerbitzuok sentiberagoak izan behar dugula uste du berak, maitasun handiagorik egin behar ditugula gauzak. Orain arte herritarren kultur beharrei buruz mintzatu gara baina Puig sentiberatasunaz mintzatzen da».

Puigen proposamenetatik abiatuta, bere irurketa ere egiten du Koldo Ruizek: «Politikook Administrazioak uzten ez digun muga gainditu behar dugu, burokrasia alegia. Muga hori gainditu eta kulturaren intsumiso bihurtzea da

apustua». Bere ustez, halaber, bere irudia saltzen ikasi behar du kultur teknikariak, «herritarrek gure funtzioa zein den uler dezaten».

Gaurko jardunaldia elkarteko eta baita kanpoko kultur teknikarien hezkuntza lantzeko antolatu du NTSEPk, kideon gabezia garrantzitsuenak zeintzuk diren kontuan hartuz. Zeintzuk diren jakiteko, hain zuzen, inkesta bat egin zuen elkarteak bazkideen artean. Kultur kudeaketaren marketina lantzea da kideok beharrezkotzat jo duten gauzetako bat eta horregatik antolatu dute gaurko jardunaldia. Baina bada landu beharreko beste gairik ere, hala nola, kultur etxe baten eta diruaren administrazioa eta ondasunaren kudeaketa. Azken horri dagokionez, Principe de Viana erakundearen esku izan da beti, baina Koldo Ruizen ustez badute udal-terteak eta bertako kultur teknikariek zer erranik gai horretan. «Orain arte egin duguna baino gehiago egin dezakegu, ohitura zaharrak, argazkiak, filmeak edo eraikuntzak berreskuratzen, besteak beste».

Udaletako kultur teknikariak
eta kudeaketa

Kalean ere erakusketak egin daitezke. Herri askotan ez dago beste lekurik.

EDURNE KOCH

gana hurbiltzen ere ikasi behar dugu, lankideak gara finean».

Politikaz edo politikoez gain, badute kultur teknikariak bestelako arazorik ere. Aurrekontua da horietako bat. Urteak urtera murriztea da askotan joera. Koldo Ruizek bestelako arazo edo zailtasunak ere aipatu ditu: «Profesionalen etika falta, azpiegitura kaskarrak eta abar». Hala ere, baikor ageri da eta kultur teknikariak arazo horiei guztiei aurre egiteko gai izan behar duela uste du. «Irauteko gaitasun handia dugu, edozein egoerataraz egokitzeko gaitasuna. Dirurik gabeko

udal bateko kultur teknikaria bazara, dirurik gabe ere gauzak egiten jakin behar duzu. Herriko bertako taldeak lagungarriak dira horretarako. Beste bideak bilatu behar dira, besterik ez».

Profesional batzuen etika falta aipatzen duenean, bere ustez kultur teknikari batek egin behar ez duena ekartzen du gogora, hau da, «betikoa errepikatu, produktu bera behin eta berriro saldu. Hori Principe de Vianak egiten du jada. Urtero errepikatzen ditu, adibidez, Udaberriko edo Udazkeneko Bira». Administrazioari egiten dion destaina hori

da hain zuzen: «Ez dira kontratzen gu bezain aldakorak eta dinamikoak izan behar dutela». Koldo Ruizek ustez, gauza berriak asmatu behar ditu etengabean kultur teknikariak, «produktu berri eta ezberdinak saldu».

Berriozar eta Burlatako

adibidea • Berriozarko Nafarroan gutxi gora-behera dauden 40 kultur etxeetako bat da. Azken bederatzirteotan Fermin Irigoien izan da bertako kultur arduraduna. Bultzatzaile eta kudeatzaile ere bada bertan. Leku falta du berak arazo nagusia. Txikia gelditu da Kultur Etxea. Bada, hala ere, berri bat egiteko asmoa jada.

Lekua ezezik dirua ere izaten da arazo Berriozarren. Kultur ekitaldiak antolatzeke aurrekontua sei milioi eta erdi pezetakoa da aurten. Aparte, jaietarako aurrekontua eta herriko kultur taldeei ematen zaien laguntza daude. Talde hauekin, hain zuzen, elkarlana bultzatu dute beti kultur arduradunek.

Burlatan ere leku falta dute arazo nagusi. Izan ere, kultur etxerik ere ez dute, areto bat baino ez. Bertako zuzendari eta koordinatzailea da Carlos Ziriza. «Beti gabilza leku bila. Kontsektorioa ez bada, ikastetxea, eta, bestela, askotan egin dugun bezala, kalea bera».

Burlatan, hala ere, izan dute beste arazorik ere. Kultur aretoa, hain zuzen, Aurrezki Kutxarena da, baita Lizarra eta Zangozakoak ere. Udal bakoitzari eman baino lehen, euren esku egon zen kultur kudeaketaren ardura. Burlatari dagokionez, aretoaren ardura oraindik Aurrezki Kutxaren esku zegoenean, Javier Zubiaur izan zen bertako azken arduraduna, «eta oso ongi egin zuen bere lana», azpimarratu du Zirizak. Aurrezki Kutxaren eta Burlatako Udalaren arteko akordio faltak, baina, kudeaketa eten egin zuen denbora batez, azkenik Zirizak bere esku hartu zuen arte. 1988. urtean gertatu zen hori. X



Herriar guztien nahiak hartu behar ditu aintzat kultur teknikariak.

JOXE LACALLE

mintzoak

Joxemiel Bidador

Idazlea

Iruñeko udal dantzari talde
berria bidean ote?

■ Bedatseko alergia dirudi. Sanferminetarako arras denbora gutxi falta denean, urteoroko zalantza ezatsegina burmuinaratzen zait zatariki: aurtengorako izanen da?, aurtentzerako da estreinako aldiz honezkeroko? Zalantzak antzu geratu dira ia beti, beldurrak elkor, eta beharrik! Oraingoan, ostera, inoliz baino indartsuago azaldu zaizkit, eta nik tema zaputuz egin arren, baztertu ezinik, enkaratu behar izan ditut, izan ere aurtengoan inoliz baino arrazoi gehiago baitaude horrelakorik gertatu ahal izateko, eta tamalez!

1988.eko uztailaren 7an, Sanfermin egunean, zorioneko udal dantzariak euren hiru flapa kuttunekin azkeneko aldiz azaldu ziren udal plazako euntze laukian, haien ondare koreografikoaz zer ziren harroki erakusteko, aldera ezina zuten euskal ikurriñak oroz gaintetik bermaturik. Zortzi urte igaro dira harrezkerotik, eta Chourraut alkate konbergentea, erredentorearena egin nahian edo, bigarren aldikoz saiatu ote da irunsheme kasta zerutiarren apeta grinatsua asetzen? Alta oroit beza irakurle altartuak Sanzernin egunerako adabaki ziztrin eta ezin mandilkir-tenagoa hitzartu zutela orduan UPNko auzapez busti eta Iruñeko talde bateko hainbat bizkarroik dantzariak batetik eta ikurriña bestaldetik prozesioan atereaz. Hortarako beharrezkoak direnak eman ote ditu jadanik? Protokoloaz arduratzen den zorioneko funtzionario zikoitzaren bitartekaritza ezinbestekoak diren dantzariak bere aldera erakartzen ihardun ote du?

Lehen eta behin iruñar udalbatzaren desio eta ametsak bertan behera desorekatzeko ez dudala inolako asmo zekenik ezer aurretik bihoa. Halaz guziz, eta aipatu urte hits horretan udal dantzaria izan nintzen bezanbatean, arrot mesfidakor agertzeko eskubidea dudala deritzot, eta honako kezka hauekiko hartuko duten jarrera alde aurretik barrundatzen dut ehizatxakur on bat izan gabe. Arteetan dantzarena txirotuena dugu, ez ordea umilena baiki. Har bedi Yauzkari gogoan. Honekin loturik kultura herrikoia ez-kultura edota azpi-kulturizat kultura-rik jasoenaren iturrama zuzena baino gehiagotan jotzen dela pentsatzeko arrazoi adina bada. Folklore hitzak eta hortik eratortzen den izenondoak, folklorikoa denak hots, bereganaturik duten gutxiespeneko esangura adibide. Euskalgintza Nafarroako erakundeek oro har eta Iruñeko Udalak bereziki saihestu beharreko eragozpen ezatsegina dutela gehien batean frogatu behar ez den gauza dugu zoritxarrez. Eguneroko axolagabekeria iraingarria froga zaigu lakat baino sarriago, usuen usunean. Aurrekari hauekin zer egingen du Iruñeko Udalak bere dantza taldearekin agindutako hiru prozesioetan, Sanfermin, Sanferminen zortziurtena eta Sanzernin alegia, atera eta gero? Zeintzuk izanen dira dantza artea maila duin batean ezarri eta mantentzeko, bertako kultura berpiztu eta indartzeko, eta euskalgintza sustatu eta bere egiteko hartuko dituen neurriak?

Anitz eta anitz litezke ostera Iruñeko udal dantzari taldea bersortzeko aitzakiak. Aipa liteke euskal dantza herrikoia biziraupen duin batetarako beharrezkoak suerta litezkeen hornimendu materialez bapo asetzeko ofizialtasuna bide bakarra dela. Inozoak! Iruñeko udal dantzari talde ohiak entseiturgia udal poliziaren biltegi-tan zuen, garabien artean, ke eta lioz ziprirtindu porlaneko zolu gorri gogorrean. Egoitzarena ez zen hagitz ere hobe, eta San Frantzisko eskolen sotoetan zegoen, jubi-latuei *ebatsi* aurretiko Kalixto tabernaren parez parean zegoen zulo hezean. Dirulaguntzena ere hobe liteke ez aipatzea, baina derragun gehiagorako eman zuen kaleko jendearen elkartasunak Balduz edota Chourraut alkateen hitzek baino. Hori duintasuna bada...

Ez baitakit ordea ene beldur oro aurtengoan ere beldur geratuko direnentz, baina horrela agituko ez balitz, ziur naiz oso ene buruari kezkatu itaun egingen niokeela horrelako moduan: *bota amuak zer gisako beita ote du mozolo ezkel hauek hain laster eta kamuski irehsteko?* Eta ihardespina horren llaburra izanen litzateke: SOSA. Zernahi ere dudamuda guziak garbitzeko tenorea uztailaren zazpian helduko da, hori seguru! ■

Xanti Begiristain

Soldadutzaren Ordezko Zerbitzua

■ Iruñeko Enplegu Institutu Nazionalako bulego arrunt batean; goizeko bederlatziak:

—Egunon!
—Baita zuri ere! Zer nahi duzu?
—Bagira ba, arkitektoa nauzu eta eskarmentu handi samarra dut. Lan egin nahi nuke.
—Ai, sentitzen dut baina une honetan oso lan-eskasia handia dago eta momentuz ez duzu aukerarik! Itzul zaitez ahal baduzu heldu den hilabetean.
—Ongi ba, agur!
Horrela joan da kalera berriz ere etsita lan bitzaille gizarajoa.
—Hurrengoa mesedez!
—Bai, egunon! Ni nauzu.
—Esaidazu mesedez.
—Orain dela hilabete gutxi batzuk bukatu nuen Historia karrera eta nire lehendabiziko lana bitlatzen ari naiz. Zer duzue?

—Zu gaztea zara, ezta?

—Bai, argi dago.

—Eta soldadutza egin daukazu?

—Ez, oraindik soldadutza-utzialdiak irauten baitit.

—Ba, zoritxarrez uste dut oso gordin daukazula lana aurkitzeko kontu hori, zeren eta gauza asko baituzu aurka-esate baterako, esperientziarik eza eta soldadutza egin gabe izatea. Hobe izango duzu, badaezpada ere, lau aste barru itzultzea ea zorte ona zure alde ageri den.

—Beno, beno, agur ba!

Hirugarrena ere joan da bere zoria tentatzera.

—Kaixo! Zer kontatu behar didazu!

—Gauza handirik ez. Gizarte laguntzailea naiz, baina ikusi ahal duzunez, gizarte-honek ez digu gehiegi laguntzen eta berritri ere hementxe gaituz lan eske.

—Zergatik diozu zaituztedala zuek? Inorekin etorri al zara ba? Nik behintzat zu bakar-bakarrik ikusten zaitut.

—Beno, badakizu, hitz egiteko modua da, orain haurdun nago eta.

—O! emakumea! Sentitzen dut, baina iruditzen zait zureak egin duela. Badakizu, *gizarte* honek gehienetan *gizonezkoak* nahiago izaten ditu, gazte samarrak, ongi kualifikatuak, eskarmentudunak eta abar. Zure adinarekin eta emakume haurdun izanik, deus gutxi espero dezakezu momentuz behintzat. Itzul zaitezte hurrengo txandan, ea bitartean Gobernu berriak egiten ote duen mirakuluren bat. Agian, zorte handiarekin, lor zene-

zake aldi baterako kontratutxoren bat. Bizitza hau benetan gogorra da, ez al da hala?

—Bai, bai, batez ere behartsu, emakume, insumiso, txuri ez diren eta abarrentzat! Agur, agur, hurrengoa arte! Martxa honetan, nik lanpostu duinen bat lortu orduko oraindik jaio ez den haurrak bere karrera bukatua izanen du...!

Eta egiatan, era tamalgarri horretan joan zen goiz hura INEMeko bulego arrunt hartan.

Nafarroako Gobernuak sorturiko Gazteriarako Sailen Arteko Batzordearen bulegoan, aldiz, begira nola zihoazen gauzak Soldadutzaren Ordezko Zerbitzuei dagokienez:

—Kontzientzi eragozlea naiz eta Ordezko Zerbitzuaren bila natorkizu.

—Oso ongi. Foru Administrazioaren zein sailatan lan egin nahi duzu?

—Ingurugiroan, mesedez.



—Ederki! Hementxe daukazu 13 hilabeterako kontratua prest sinatzeko.

—Mila esker, agur!

—Ario! Hurrengoa, arren!

Bulego honetan, ordea, horrelako martxa zegoen. Hortaz, argi eta garbi dago nola jokatu nahi duten hemengo eta Madrilgo gobernuek Soldadutzaren Ordezko Zerbitzuari dagokienez. 1.000 lanpostu edo gehiago eman nahi dizkiete Nafarroan, bertako Administrazioan, kontzientzi eragozleei, nahiz eta esperientziarik, kualifikaziorik eta soldadutza eginik ez izan; 13 hilabeterako eta kobratu gabe. Nik ez daukat deus ere kontzientzi eragozleen aurka, baina bai erregulazio kaskar horren kontra; hor kaltetuak eta biktimak asko baitira; esaterako, emakumezkoak, eragozleak berak, insumisoak, jende baztertua, langabetu guztiak, eta azken finean, gizarte osoa. Horrexegatik sinatu dut Kontzientzi Eragozpen Lege horren aurka. ■

Klasiko bitxi • arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Materre eta Pouvreau euskal idazleak

■ Harrigarri samar gerta dakioko bat baino gehiagori euskaraz izkiriaturiko XVII. mendeko zenbait lanen egile Euskalerritik kanpoko izatea, baina egon bazeuden. Eta haien berri zertzeladaren bat ematera bagatoz gaurkoan. Estebe Materre frantxi-kotarrak 1717.ean Bordeleko Petri de la Court delakoaren moideetan inprimarazi zuen *Dotrina christiana* bat, 1623.ean *bigarren impresioan debocinozco oiholtz eta oracino batquez berreturic hirur partetan eguina* ber hiriko Jacques Millanges erregueren inprimatzailearenean berriz ere elki zena, lehendabizkotik bigarrenora orrialde kopurua bikoiztu zelarik. Hirugarren bat oraino ere 1693.ean ageri zen Baionako Piarres Dussarrate baitan izenburua pittin bat ltxuraldaturik, hau zen, *Bouqueta lore divinoena bereciac eta Duronea apezac alta Materren liburuari emendatuac, iduquicen dituelaric asthe guztico egunetaco officioac ungui confessatseco eta errebitseco molde eder batequin bethiereco kalendarioarequin*. Materre etzen euskalduna eta horrela bazuen aditza ematen *«euscaldune»* sarreran inolako konplexurik gabe: *«Gaiñeracoan badaquit Euscal-Herrian anhitz moldez minçatzen direla, eta nori bere herrico euscarac çaicala hoherenic eta ederrenic, eta handic gogora emaiten deraut ene esquiribatseco molde haur etçayela guztiei ongui idurituco; baiña nahi dut iaquin deçaten halacoc nec hitzcunça hunetan daquidana Saran ikassia dudala eta hango euscarac ongui erabilcen badut ez naicela gaitz erraitco, eta ez arbuyatseco ceren ez paltait nic hangoa baicen. Ordea ea Saraco euscarac denz Euscal-Herrico hoherena eta garbiena, ez naiz ni hartzan sartcen, bai-bederac emanen du bere iduric. Eta Saraco eustara hunetaz content eztenac ezqutriba beça bertce euscarac hobeago batez eta hobequilagoc, ez naiz ni hartatit bekatzuco, eta ez imbidios çane»*. Saran beraz ikasi zuen euskara, Axularren maisutzapean omen, dotrinaren baimen emaitetakoia izan zena bestalde, Martin Gillentenea baxenafartarrarekin batera.

Bourgesko semea genuen Silvain Pouvreau gazte zela Saint Cyran jansenzale ospetsuaren zerbitzuan sartu zen. Jean Duvergier-Haraunne Etxeberri baionarra, Saint-Cyran goitizenez hagitze ere ezagunagoa zena, Cornel Janssen batera, jansentismaren aitagoia genuen. Balonako gotzaila zen Bertrand Etxauz baigorriarrak bereziki miresten zuen eta hori zela bide ltxasuko erretoretza eskeini zion, Saint-Cyranek jakin baiko erdeinatu zuena. Ezetzaren ostean gotzailak ltxasura lotu zuen apezca gorago aipatu dugun Martin Gillentenea izan zen. Etxauzek, Tourseko artzapezpikutegiburu izendatu zutenean, Saint-Cyran Poitiersekoaren bikario orokor izendatzea erditetsi zuen, eta 1620.ean Brenneko Saint-Cyran abate izendatu zuten, nondik ezizena bereganatu zuen. Etxean euskaraz mintzo bide zen, eta Pouvreauk, idazkari lanetan ziharduelarik, etekin handiak ateratu zizkion egoerari, izan ere idazketen karietara nonbait ikasi gaztelera, latina eta hebraieraz gain aditzen zuen euskara ere zeharo barneratu baitzuen. Saint-Cyranek Parisen ezagutu zuen San Bizente Paulekoak Pouvreau ere ezagutuko zukeen seguruenik eta hau apeztu ostean Saint-Cyranengandik hastantzeko asmoa jakinarazi zioenean, Pouykoak François Fouquet Batonako apezpiku berria aurkeztu zion Bourgeskoari berekin joan zedila. Euskaraz hain elestari ona zen ezi Bidarteko erretoretza eskeini ziola gotzai berriak. Guzlairekin bertan arras gutxi irau zuen, bada 1644.ean Fouquet adgera joan baitzen eta Baionako kaderan Etxauzek amaren aldetik iloba zuen Jean Oltze iholditarra eser berri zen, halabehar Pouvrearen biziki lagunmina etzema, eta Bourgesera itzultzeko bultzada ezinbestekoa gertatu zitzaion, non irauten zuen bere heriotza ailegatu arte 1670-1680 hamarkadan. Pouvreauk litan bite Euskal Herriratzekeo parada izan zuen, esate baterako, 1660.ean Luis XIV.aren ezkontza zela eta Donibane Lohitzunera joan zenean. Kontuan hartu behar da Euskal Herrian lagun bat baino gehiago egin zituela, Oihenarte edo Materre bera berbarako. Bere lehendabiziko euskal idazkia 1656.ean Pariseko J. Rogerenean karrikatatu Bellarmin kardinalaren katezismoa izan zen, Richelleuk Luçongo diozesirako apa-latu edizioaren arabera, hau da, *Guitristinoaren dotrina*. 1664.ean Saleskoaren *Philotea* agertu zuen Pariseko Cl. Audinet baitan eta urte bat beranduxeago leku eta etxe berean Gudu ezpirituala. ■



Udaberri txapelketako bigarren jardunaldiko partida, 1996ko apirilaren 27an jokatua.

Juan Fraile, ELORik gabekoa —
Andres Sanchez, 1.860 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Zc3,Zf6; 4.Ac4,Ze4.

Partida nahastuko duen jokaldia. Beltzak ez dira ongi aterako.

5.Af7 xa,Ef7; 6.Ze4,d5; 7.Zc3,Ag4; 8.h3,Ah5.

Huts batek katean hurrengo hutsak ekartzen ditu. Erregearen posizioa desiragarria ez badute ere, orain okerrago jarriko da, peoia galtzeaz gain.

9.Ze5 xa,Ze5; 10.Dh5 xa,Ee6; 11.0-0,g6; 12.De2.

Erregearen posizioa zeharka mehatxatuz.
12....Ac5; 13.d3,Gf8; 14.Ah6,Gf5; 15.Eh1,Ef7; 16.aG-d1,Dh4.

Ikus koadroa. Pieza beltzak ez daude ongi kokatuta. Ondorioak larriak izanen dira.

17.f4,Zd7; 18.Ag5,Dg3.

Nahiz eta egokia ez izan, 'Dh5' zen jokaldi bakarra.

19.Gf3,Gg5; 20.g5 xa.

Panorama horrekin, beltzek amore eman zuten. Egia erran, bidea nahikoa ireki zieten txuriei.



Piraguek Arga hartu dute

'Arga bizirik' programa antolatu dute bosgarren urtez jaraian Iruñeko Udalak eta Natura taldeak

Arga ibaia piraguek hartu dute, azken lau urteetan bezala. Natura taldearen ekimenez sortu zen Arga bizirik programa eta horren bidez, 600 gazte inguruk du urtero Arga piragua batean jaisteko aukera. Kirola ezezik, Iruñea bera eta ibaia ere hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du ekitaldi berezi honek. Ekainaren 30era bitartean, as- tean lautan egingen da.

Eduñe Elizondo / Iruñea



Gazte bat eta Naturako begirale bat Arga ibaia jaisten. NATURA

JOAN den apirilaren 24az geroztik, asteazken, ostiral, larunbat eta igandero Arga ibaian behera piraguan ibiltzeko aukera eskaintzen diete Natura taldeak eta Iruñeko Udalak gazte iruindarrei. Halako ekitaldia bosgarren aldiz antolatu du kolektibo honek Udalaren eskutik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako eta BBBko eta Lanbide Heziketako lehen, bigarren eta hirugarren mailako iruindarrei dago zuzendua. Oro har, 40 ibilaldi antolatu dituzte Naturakoek eta horietako bakoitzean hamabost gazte eta bi begirale hartzen dute parte Argan zeharreko txangoan. Azkena ekainaren 30ean izanen da. Ordura arte, gutxi gora-behera, 600 bat lagun jaitsiko dira Arga ibaian zehar piragua batean.

Arga bizirik programa orain dela bost urte jaio zen, Natura kolektiboaren ekimenez. «Iruñetik atera gabe kirola egiteko aukera bazegoela ohartu ginen», gogoratzen du Mikel Sarobe Naturako kideak. Ideia landu eta Iruñeko Udalarai aurkeztu zioten. Ordutik gaur egunera arte, elkarrekin antolatu dute urtero Arga bizirik.

Hasiera zaila izan zen baina urtetik urtera gero eta jende gehiagok hartzen du parte Naturak antolatu ekitaldian. «Interesgarria da oso Arga eta Iruñea bera piragua batean ezagutzea». Iruindarrak, antza, hortaz jabetu dira eta Mikel Sarobek azaltzen duenez, «hirugarren urtetik hona berehala betetzen dira 40 ibilaldiak egiteko lekuak».

Oraingoaz, gazteek baino ez dute Naturak eta Udalak antolatutako Arga bizirik programan parte hartzeko aukera. Naturakoen asmoa, hala ere, aukera hori edonori zabaltzea da. «Aurten ezinezkoa da baina ea datoren urtean lortzen dugun. Dena den, ez dago gure esku, dirulaguntza handiagoa beharko genuke eta asmo hori egia bihurtzeko».

Iruñea beste ikuspuntu batetik • Asteazken, ostiral, larunbat eta igandero, Burlatako Intxaurdiaren parkean elkartzen dira Naturako kideak Arga piragua batean jaitsi nahi duten gazteekin, arratsaldeko hiruretan asteazken eta ostiraletan eta eguerdian

Ekainaren 30era bitartean dago asteazken, ostiral eta asteburuetan Arga piraguaz jaisteko aukera

«Garrantzitsuena Iruñea beste ikuspuntu batetik ezagutzea da, berezia, ezberdina eta polita den ikuspuntutik»

«Bost urteotan behin baino ez dugu txangoa bertan behera utzi behar izan ura zikin-zikina zegoelako»

asteburuetan. Bertatik Oblataseko zubiraino jaitsiko dira lau orduko bidaian. Ibaian sartu baino lehen, beste ordubete inguru ematen dute lurrean. Pira-

guak eta arropa —neoprenozko jantziak eta igerigailuak— banatu ezezik, piragua bera eta arraunak nola erabili irakasten diete Naturako kideek gazteei.

«Ez da ezer berezirik jakin behar halako ekitaldi batean parte hartzeko, igeri egiten baino ez. Bestela, edozeinek egin dezake» azpimarratzen du Mikel Sarobek.

Zortzi urteko ibilbidea

Carlos Diez, Koldo Aranguren, Agustín Errasti eta Mikel Sarobe dira gaur egun Natura taldeko kide, mendizaleak guztiak. Orain dela zortzi urte elkartzea erabaki zuten, eta orduz geroztik, lanean ari dira. Hainbeste maite zuten eta duten natura jende orori erakustea dute helburu. Ez nolana, ordea, «errespetuz, mugak ezarri», baizik.

Urte osoan antolatzen dituzten ekitaldiak bi multzo nagusitan banatzen dituzte, urretakoak eta mendikoak. Horietan parte hartu nahi duen orok zabalik ditu Naturako ateak, «ez baitugu inolako prestakuntza berezirik eskatzen. Hutsetik hasten diren ekitaldiak dira». Uretan egiten dituzten ekitaldien artean, piraguak, rafting, kanoak eta arroilen jaitsierak aipa daitezke.

Mendian, berriz, espeleologia, zeharkaldiak eta egun bakarreko ibilaldiak. Badira negukoak berezkoak diren ekitaldiak ere, hala nola ipar eta mendi eskiak. Hauek guztiak, batez ere, Nafarroako eta Huescako Pirinioetan egiten dituzte Natura taldeko kideek. Abenturazko kirolak deitu direnak dira, beraz, Naturakoek antolatzen dituzten ekitaldietan protagonista. Kirol hauei buruz, badu Sarobek zer aipatu. Azken urteetan gorakada nabarmena bizi izan badute ere, gorakada hori areagotu egingen dela uste du Naturako kideak.

«Hasieran jende gutxi mugitzen zuten halako kirolek baina egun jende asko dago, masifikatu egin dira».

Halako kirolak egiten dituzten guztien jokabidea, gainera, ez da berdina eta askoren

arduragabekeria salatu nahi izan du Mikel Sarobek. «Telebistan ikusten dutena egin nahi dute askok baina berdin zaie nola. Ezer jakin gabe buru-belarri sartzen dira eta gero gerokoak. Bada honetan edozein modutan aritu nahi den jendea baina kontuz ibili behar da. Bestetik, gailuak landu eta behar diren titulazioak eskuratu behar dira halako ekitaldiak antolatu ahal izateko», azpimarratzen du Naturako kideak.

Halako kirolek naturan eta ingurunean izan dezaketen eragina ere Naturakoekin mintzagai izan dugu. Bere ustez, nahiz eta eragin hori gertatu, «izan zitekeena baino txikiagoa izan da». Abenturazko kirolen gorakadak jende asko erakarri du baina horrelako kirolak leku mugatuetan egiten di-

renez, horren ondorioak ere leku mugatuetan jaso dira Saroberen irudikoz. «Belagua, adibidez, jende gainezka dago neguan. Egia da Belagua bezalako puntu beltzak badaudela baina, nire ustez, askoz handiagoa izan zitekeen halako masifikazioaren eragina».

Naturak, berriz, kontserbazioa bultzatu nahi du antolatzen duen ekitaldi ororekin bere kideek azaldu dituztenek. «Arga bizirik programan bezala, guretzat kirola ingurunea ezagutzeko medioa da, inoiz ez helburua. «Guk beti erran dugu Iruñeko biztanle guztiak mendira joan balira, edo Arga piragua batean jaitsiko balute, Iruñean bizimodu ezberdina izanen litzatekeela, Arga beste ikuspuntu batetik begiratuko luketela».

Ekitaldi honetan parte hartzen duten gazte gehienentzat, hain zuzen, piragua batean sartzen diren lehen aldian izaten da Naturak eskaintzen diena.

Izan ere, kirola, natura eta ingurugiroa ezagutzeko bidea baino ez da Naturako kideentzat. Halaxe azaldu digu Sarobek. «Garrantzitsuena, gure benetako asmoa, Iruñea beste ikuspuntu batetik begiratzea eta ezagutzea da, ezberdina, berezia eta polita den ikuspuntutik. Arga, gainera, oso ibai berezia da, beste hirietan dauden ibaien oso ezberdina. Ertzeak, leku bakar batzuetan izan ezik, berde-berdeak daude eta udaberrian ura nahikoa ekartzen du ibaiak».

Eskaini nahi duten ikuspuntu hau iruindar gehienentzat ezzaguna dela onartzen du Sarobek. «Iruñetik kanpora joateko ohitura daukagu, ondoan daukagunari jaramonik egin gabe». Hori dela eta, ezustekoa hartzen dute Arga bizirik programan parte hartzen duten gazte askok. «Iruñeko katedrala edo harresiak Argatik ikustea gauza berezia da, ezohikoa. Bidean, gainera, zubiak, errotak eta bestelako asko ikusten dira». Iruñearen beste ikuspuntua ezagutu ezezik, Argako landare eta animaliak ere ezagutzeko parada dute gazteok.

Argak dakarren urari buruz ere badu Naturako kide honek zer erranik. Ibairen egoera hobetu daitekeela azpimarratzen duen arren, ongi dagoela uste du Sarobek. Hala ere, Arga ibai garbitzat «saldu» nahi dutenekin ez dago ados. «Noizbehinka, zikin-zikina agertzen da». Ez da ohikoa, dena den. «Bost urteotan behin baino ez dugu txangoa bertan behera utzi behar izan ura erabat zikina zegoelako. Isurketa bat gertatu zen». Ibai ertzeei dago kienez, halaber, «ura baino zikinagoak daude», gaineratzen du Mikel Sarobek. X

◆ Mikel Aranburu ◆ Euskal Herriko Txistularien Elkarteko lehendakaria

«Akademietan zokoan gelditu da txistua»

Berako Inaki Irazoki nagusitu zen joan den larunbatean Iruñean egin zen Euskal Herriko Txistulari Txapelketan, 16 urtetik behekoentzako mailan. Bigarrena Gasteizko Aitor Gonzalez izan zen eta, atzetik, beste bi beratar: Joseba Baleztena eta Aitor Irazoki.

Alberto Barandiaran / Iruñea

EUSKAL HERRIKO Txistulari Elkartek antolatu duen finaleko lehen eguna izan zen Iruñean, eta Pablo Sarasate kontserbatorioan helduen mailako kanporaketa ere egin zen. Lehen bostak hilaren 26an Gasteizen egingo den finalean izango dira, txapela norena den erabakitzeko. Elkarrekin honetako lehendakari izendatu dute duela bi aste Mikel Aranburu iruindarra, Iruñeko Udal Txistulari Bandako partaidea azken 20 urte hauetan. Berak dioenez, txapelketa honi segida eman nahi zaio elkartetik.

■ **Ia hamar urte egon zen txapelketa hau antolatu gabe, duela bi urte Gasteizko Olabide ikastolak berriro egitea erabaki zuen arte. Zergatik tarte luze hori?**

Txistulari txapelketak betidanik izan dira, duela ehun urte inguru ere egin ziren, eta oso aspaldiko tradizioa dute. Azken urte hauetan etena izan zen, ez elkarrekin ez beste inork ez zuelako antolatzen. Olabide ikastolak berriro antolatzeko gogoazazaldu zigunean, oso ongi iruditu zitzaigun, eta orain bi urterot egin nahi da txapelketa hau. Elkarrekin ere badugu asmoa banden txapelketa egiteko, oraingoa soilik bakarlarientzat delako.


■ **Elkarrekin ere aspaldikoa da. Nola? Zelan du bizitza?**

Elkarrekin 1927an sortu zen, euskal kulturaren berpizkunde-

ko garai haietan. Aita Donostia eta Aita Olazarán Lizarrakoa zeuden han, eta Arratiako Ama Birjinaren aurrean osatu zen, orduan egin zen bezala: sona handiz. Hasieratik alarde eta topaketa asko egin ziren txistulariekin, baina 1936ko gerrarekin eta Francoren garaiarekin dena eten zen, euskal kulturaren adierazpide ororekin gertatu zen bezala, 1955ean berriro berpiztu zen arte. Elkarrekin egin beharrik garrantzitsuenetakoa izan da Txistulari aldizkariaren argitalpena, tradiziozko soinu-tresna bakar batentzako lanen konposizioa, ikerketa eta zabalpena helburu duen bakanetakoa Europa osoan. 1927tik -1936tik 1955era bitarteko eten horrekin - bost mila orri inguru argitaratuak dira. Kontuan hartu behar da ia euskal konpositore guztiek idatzi dutela txistuarentzat zerbait, nahiz eta azken honetan gutxiago diren ohitura hori dutenak, eta, ondorioz, txistuak gaur egun badu erreperatorio modernoak, aukera emango diona maila akademiko honi eusteko. Txistuak berpizte handia izan du azken urteotan; gogoratu behar da lehen txistu afinatuak duela 25 bat urte egin zirela, eta 1983an txistu eta orkestrarako lehen kontzertua egin zela. Donostiako Kontserbatorioan Jose Ignacio Ansorenak zuzentzen duen Txistu Katedraren inguruan izan da iraultza akademiko hau, oso ondorio onak izan dituenak. Alde makurra izan da txistua ez dela kalean lehen bezainbeste entzuten, akademietan gelditu delako zokoratuta.

■ **Garbi dago galdu duela kalean lehen zuen presentzia.**

Hori ezinbestekoa da. Gure aitona-amonentzat ez zegoen txistua besterik eta jaiak ttunttuna zen. Gero, gazteek beti eskatu izan dute berria dena, eta hori izan da gaiteroak hasieran, eta gero akordeolariak, metal tal-



Mikel Aranburu.
JOXELACALLE

deak... Hauek guztiek baztertu egin dute txistularia, betiko doinuak belariz jotzen zuena. Erabat arrunta den prozesu honetan normalena izango zen txistua desagertzea, etnografiarako gai hutsa izatea. Baina Euskal Herrian ez da hori gertatu, eta txistuak bere bidea egin du akademietan eta beste soinu-tresnekin.

■ **Uste duzu jendea ohitu dela txistua kontzertuetan eta ikustera?**

Ez da akaso jende guztia iritsi, baina gauza politik egiten ari dira. Adibidez, guk urtean hiruzpalau aldiz jotzen dugu Musika Bandarekin, eta Iruñeko Udalak duela gutxi enkargatu zuen pieza bat txistu, gaita eta musika bandarentzat, oso gauza berria izan zena. Lan asko egin daiteke arlo honetan, eta elkarrekin bertan deialdia egin nahi dugu txistuarentzako eta beste soinu-tresnentzako konposizio

lehiaketa baterako. Onartu behar da ez dela soinu-tresnarik eza-gunena, eta gu ere ez gara gehiegiz aldarrikatzearen aldekoak, baina oraindik oso present dago ekitaldi askotan.

■ **Txistulari aldizkaria oso erreferentzia nabarmena izan da txistulari askorentzat, ia sorkuntza guztia hor bildu delako. Nola eutsi zaio maila horri?**

Aldizkariak bi alde ditu: bat literarioa eta bestea musikala. Literarioan badaude berriak, istorioak eta artikulatuak, baina bestean oso lan garrantzitsuak argitaratu dira, profesionalak idatzi dituztelako. Azken urteotan aldizkariak azpimarratu egin du arlo zientifiko hori, eta lan handia egiten ari da bertako musikologian, jatorrizko iturrietara joz berreskuratzen ari delako ondare musikala, eta aspaldiko partiturak aztertzen ari direlako. Gaine-

s o s l a i a

Joan den apirilean Durangon eginiko batzarrean aukeratu zuten Euskal Herriko Txistularien Elkarteko lehendakari Mikel Aranburu, nahiz eta orain arte ez zaion egokitu lanean aritu beharra, bazkide soilak izan baita.

Iruñeko Udal Txistulari Bandan 21 urte eman ditu. 1942an sortu zen talde hau, eta urtean zehar dituen zereginen artean, horietako batzuk dira udal taldearen segizioetan parte hartzea -uztailaren 7an, uztailaren 14an eta San Saturninoko Prozesioan, batez ere-, jai giroko ekitaldietan jotzea -urte osoko igandetan, udan izan ezik, dianak eta alboradak- eta abuztu eta irailan Sarasate pasealekuan egiten diren jaialdietan parte hartzea.

Txistuzaleak direnez, nahastu egiten dituzte tradiziozko piezak eta lan berriak. Horretarako, Aranburuk dioenez, landu egiten dituzte kontzerturako piezak, eta horiek Txistulari aldizkariatik ateratzen dituzte.

ra, konpositore berriak lan modernoak sortzen ari dira, eta bertan argitaratzen dira.

■ **Beste instrumentuetan bezala, izango dira txistuaren munduan izen handiak, marka utzi dutenak.**

Azken urteotan nabarmendu behar da Jose Ignacio Ansorena, bera izan delako txistu modernoaren bultzatzaile nagusia, musikari profesionala eta familiako tradizioaren oinordekoa. Meritu izugarria izan du, berak aldarrikatu delako txistuarekin lan profesionala egin beharra, eta jende asko bildu duelako bide honen inguruan. Hala ere, gogoratu behar dira herrialde guztietan dauden txistu joleak, musika eta jotzeko ohitura gorde dutenak, esate baterako Alejandro Aldekoa durangarra eta Maurizio Elizalde baztandarra gure artean. Horiei esker txistua bizirik izan da gaur egun arte.

«Jose Ignacio Ansorena izan da txistu modernoaren bultzatzaile nagusia, musikari profesionala eta familiako tradizioaren oinordekoa».

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA



Jakin nahi nuke non demontre gorde duten duintasun hori!!